

Bi adiera ditu gerkerako Logosak: Hitza (eta hortik dator) erdarazko diálogo=elkarrizketa) eta Arrazoiá (eta hortik dator logika), Hitza eta arrazoiá (arrazoiarena) biak batera datoz gizakia definitzeko, "animal rationalis" eta "animal loquens" bezala. Hitzean maitzen eta azaltzen da arrazoiá; arrazoiá adierazten eta argitzen du hitza.

Irakurri dudanez, logos: hitza-arrazoiá filosofiarren funts bezala jarri zenean hasi omen zen, gainera, Atena-ko demokraziaren garaia, Sokrate-ri zor omen zaito hori.

Parlamentarismoa eta elkarrizketa

Grezia-ko demokrazia hartu dute eredu-tzat gure demokrazia erreformatuak; Hitzean eta arrazoiaren garaipena! Horren oinarritutik Parlamentua (=hitziak) jarri dute. Eta hitza eta arrazoiá logos-ean batzen direnez, beren demokrazia parlamentarioa eta demokrazia arrazoiála gausa bera direla erakutsi nahi digute. Greziarren arabera nonbait!

Parlamentuan oinarritzen da demokrazia parlamentarioaren aginte osoa. Horregatik, Espainiak bere parlamentua duen bezala, ba dugu eskual parlamentu autonomoak ere, ba dugu Nafarroako parlamentu forala ere. Parlatuaz edukitzea bait da garrantzitsuenak. Eta parlamentuak egotea, noski!

Hitzean gainean ezarrita dago parlamentu-sistema osoa. Eta hitz "parlamentarioaren" prozesuak ba ditu bere garaiak. Aurrenik parlamentariak hautatu behar dira parlamenturako; horretarako herriari hitzeman behar zaio — ez "hitza herriari eman" —. Kalea, plazak, irriatik, telebista... denak dira herriari hitz handiak emateko, agintzariak egiteko baliabideak. Propagandaren izena darama lehen aldian honetan hitzak. Sarritan hitz-jario hutsa!

Parlamentu osoa denean bestelako tankera hartzen du hitzak. Elkarrekin hitzegiteko garaia da, itxuraz: elkarrizketa muntatzeko. Bi bide daude horretarako: bata, parlamentarien aurreko hitzaldiak, eta horretarako hizlari ona izatea garrantzitsua da; bestea, parlamentuko gela ezkutuan alderidiburuen artean egiten den negoziatioa. Baina hura oso sarritan bakarrizketa gertatzen den bezala. Beste hau parlamentutik kanpo egindako alderiarako hizketaz eta kontentsuaz besterik ez da gertatzen.

Azkenik, parlamentutik ateratzen den Gobernuarentzat bestelako tankera hartzen du hitzak, teoriar bezalaz. Emandako hitza betetzeko garaia da. Baina oso sarritan emandako hitza jateko makina besterik ez da izaten Gobernuak.

Herriari hitzemateak, parlamentarien artean hizketaz, Gobernuaren hitza betetzeko ez dute askotan elkarrekin zerikusi handirik. Lotura bakarra agian hauxe dute: Demokrazia erreformatuaren parlamentu-sistema hau herriari hitzegiteko sistema dela (mitinetatik, par-

Hace ya casi tres años me puse yo a escribir una "Carta al director" de "El País". La esbocé, pero por fin quedó en mis manos. Resumo dos párrafos de aquella carta abotada: "Yo voté a Herri Batasuna; y porque yo voté a Herri Batasuna, Vds. me han tachado de actitud (o acto) irracional (...). Otros, antes de su editorial han calificado mi voto como voto visceral, el voto de la irracionalidad, el voto de la rabia, el voto de la irresponsabilidad". "Todos estos calificativos, más que ofenderme, me han preocupado, porque he visto que no se ha comprendido ni se ha tratado de comprender, sino de insultar. Y así es imposible la democracia del diálogo que Vds. pregonan". Trataba yo entonces de responder a un editorial, titulado "Algunas interrogantes sobre el País Vasco" y dado a los pocos días de las elecciones generales del 1-M de 1979. Después, el periódico ha seguido la misma línea de enjuiciamiento del País Vasco y de sus componentes político-sociales, a pesar de sus confesiones de error. Más aún: alardea de ser el pionero de la racionalidad en la nueva "democracia parlamentaria", al que otros diarios tratan de imitar, y se ha constituido en la cátedra del mundo de los intelectuales que urgen al diálogo, condenando de antemano a los herejes de "su" democracia a la hoguera de la irracionalidad. Pero aquí no se trata de hablar de un periódico, sino de ese montaje de la "parlamentaria democracia reformada" que pretende ser el sistema del diálogo racional, apoyado por los profesionales de la razón, los intelectuales; pero que de hecho es su mixtificación, al basarse sobre la negación de uno de los atributos de la razón humana, su universalidad, y sobre la degradación de la palabra dialogante, el insulto previo al interlocutor tachado de irracional.

el tópicó de la racionalidad (VII)

demokrazia parlamentarioa: hitza ala arrazoiá

lamentutik nahiz gobernutik); ez hitza herriari berari emateko sistema.

Horrela, elkarrizketa-sistema izan behar lukeen demokrazia, parlamentarismoa hutsa bihurtu da. Hala ere, Greziatiko sustaieki helduz edo, demokrazia erreformatu guztiak bat datoz sistema horri arrazoiála deitze, eta parlamentuan partetik ez dutenak irrazionalizat jotzeko: izan ere, hitza eta arrazoiá lotuta bait daude greziar filosofian eta parlamentarismo erreformatu honetan ere bai nonbait.

Hitza eta iraina

Elkarrizketa da, hain zuzen ere, demokrazia erreformatu honetako parlamentarismoa etengabe erabiltzen duen baliabide erraza. Horregatik "Deia"ko zuzendariak EAJeko lehendakaria bestelako salaketarik atera beharrean gertatzen dira: "A Xabier Arrazulu, un político que ha apostado siempre por el diálogo y por la racionalidad..."

Baina etengabeko kontraesanetan nahasturik dabilza, elkarrizketa-rako solaskidea, solasgaia eta solaserako baldintzak boteredunek ezarri nahi dituztenak.

Demokrazia erreformatu hau elkarrizketaren alorra itxiaz hasi da: Monarkia, harmada, Espainiaren batasuna, etab. etab. ikutu ezinak, negoziatzen dira. Eta horren gainean hizketatu ziren Konstituzioari bai eta Gernikako Estatutuari buruz ere.

Era berean, boterea dutenak berarek jartzen dituzte elkarrizketa-rako baldintzak ere: ezkutuan izan behar dute, etab.

Gaiki eta baldintzak mugatu ondoren, solaskideak ere beratek aukeratzetan dituzte: independentistek, etab. ez daukate demokrazia erreformatuko parlamentarismoan sartzetik.

Baina guzti hori zuriutu beharra dago, eta horretarako leize bat irerki beharra, parlamentaristen eta bes-

teen artean: Beste hauek elkarrizketa-rako ez direla gai edota ez dutela nahiz, irrazionalismoaren munduan dabilzala esan beharra dago. Irrazionalak direnez, "mesianoak", "erraiberoak", "grinatsuak", "artaldetiarak", "buruberoak", "utopikoak", "hirugarren mundutiarak", "irrealak" dira; "liderrek eta emozioek", "mitoak, irudiak eta grinak" eraginda dabilza, eta ez "programa eta argudioak", "ideiak eta arrazoiaketa" eraginda, parlamentarista arrazionalak bezala.

Baina hemen elkarrizketa hitza irain bihurtu da. Eta nekez izan daiteke serioa elkarrizketa-ekaintza, solaskideari horretarako gaitasuna aldez aurretik ukatzen baldin bazaio; ez dago elkarrizketarik izaki arrazionalen eta irrazionalen artean. Iraina inoiz ez da elkarrizketa irekietako bidea. Zein elkarrizketa moduri eragin diezaioke El Pais-ek eskuil indarren artean, horietako bati, Herri Batasuna-ri, "aberrante conglomerado de apologistas de la violencia, revolucionarios verbalistas, sabinianos intransigentes, tercermundistas sin causa y mutantes del carlismo" bezalako errosarioa erantsi ondoren?

Gure burulagileen hitza (eta arrazoiá)

Arrazoiaren —logos-aren— profesionalak omen dira intelektuak; demokrazia hitza batean doazenez, arrazoiá parlamentarioa honek ere intelektualek edo burulagileen laguntzaren premia nabari du.

Gure Herriari famatu gertatu zen 33 intelektualek agiri hura, Berriro irakurri du. Eta pena hartu dute. Demokrazia parlamentarioak bezala, hauek ere hitza irain bihurtu dutela ikusi bait du. "Zorakeria", "burugaldia", "irrazionala", "zentzugabehera" irain-hitzak nabarmendu zaizkit agiriari. Irrazionaltasunaren kontrakto gerraren deklarazioa ematen duela irudituzait.

Gure Herriari kanpotik datorrikin

biolentzia eta ulergogortasuna "incomprensión que raya en ocasiones en demencia", bide batez bezala salatu ondoren, geure Herri barruan dugun biolentziaren sustaieki irrazionaltasunean aurkitu ez dute, eta horren kontra doa bereziki tirokada: "individuos violentos y desequilibrados", "automatismos gregarios e irracionales" direlakoan kontra. Zentzugabeheriaren aurkako burruka eskatzen du: "campaña contra la ola de insensateces". Guzti hori, "una réplica libre, legítima e inteligente" baten, "método racional y pacífico" baten izenean.

Irakurlea ohartu da noski, "irracional" hitza gehienetan beste laudoriozko kide batekin doan bezala, "irracional" hitza gehienetan irazneko hitzen batekin loturik doala. Taktika ezaguna da hau, ez agiri horretan bakarrik. Hona: "Parlamento equilibrado y racional", "método racional y pacífico", "réplica libre, legítima e inteligente", "motivos racionales y funcionales", "racionalidad y progresismo", "debate objetivo y racional", "comprometimiento racional y tolerante", "soluciones justas, racionales y pacíficas", "posiciones más racionales y pacíficas"; beste aldetik: "automatismos gregarios e irracionales", "actitudes viscerales y descalificaciones simplistas" y de ahí un berriro aipaturiko epiteto "eder" guztien konpania.

Irudizten zaidenez, herri honetan arrazionaltasunaren eta irrazionaltasunaren azterketekin batera, gure politikarientz eta burulagileen hizkerak-jartzen azterketa ere beharrezkoa genuke. Bitxia eta argigarria gertatuko litzaiguke.

Gogoz berenganatu dute gure intelektualek arrazionaltasunaren defentsa. Joseba Arregik Deia-n idatzi zuen artikulua labor batetan zortzi aldiz etrepikatzen zuen "razón/racionalidad" eta sei aldiz "pasión/sentimiento/emoción", nolabait haiek eta hauek aurrez-aurre

jarri, eta euskaldunon arrazionaltasunaren premiaz eta indar irrazionalen garaipen oso kezkatirik.

Arregio, Guernika espainiarizatzeak arrazionaltasunaren kantua kantatzeko aukera bikaina eman dio hainbait —beharbada, eta bide batez, hori Madriten jartzearen kontra geunduen irrazionaltasuna salatzeko—.

Malaga-ko irrai-hizlari bati entzun nion: "Málaga que ha renunciado nacional y generosamente al cuadro...". Ez ote da hau "racional" kontzeptua topiko huts bihurtzea? Eta J. Jiménez Lozano-ek (Vida Nueva, 1981-X) Guernika eta espainiarren arteko bakteza arrazionaltasunaren gainean jartzen du. "Si de nosotros, los españoles, pudiera esperarse algún tipo de racionalidad...".

Ahoa betetzten zaie nonbait gure intelektualei, "arrazional" hitza aipatzeko. Baina susmoa daukat, beren arrazionaltasuna predikatzen, ahoa betetzten zaien neurrian, besteren irrazionaltasuna salatzean ahoa berotu egiten ez ote zaien sarritan; ahobero bihurtuz, alegia. Burulagileak, burutsua bada ere ez uka beste guztiak burugabek direla pentsatzerik, burundun bakarra bera balitz bezala. Abiapuntu horretatik ez dago elkarrizketa abiatzerik.

Ondorioz

Arrazoiaren unibertsaltasuna aitortuz hasi zen historia modernoa Euskal Herri modernoa eraiki nahi badugu, hasterako, euskaldun guztion arrazionaltasuna aitortuz hasi beharra daukagu: Garaikoetxearena, goizeko bostak arte Moncloan negoziatzen ari denean; Mario Onaindiaren, Estatutetik Nafarroaren eta presoen arazoa konpondurik ikusten duenean; Herri Batasunarena, Gernikan erregerai kantatzen diotenean edota Nafarroako Parlamentu bertan behera uzten duenean; ETArena, burruka artzuna beharrezkotzat jotzen eta egiten duenean.

Aitortpen horretatik bakarrik abta daiteke benetako elkarrizketa, nahiz eta horrek eztabaida gogoraren itxura hartu.

Arrazoiá ez da inork bere jabetzakotzat eduki dezakeen ezer. Intelektualek ere ez dauka arrazoiá jabetzerik, ez inola aldeldik edo gidari politikol. "Arrazoiá (arrazoialtasuna) edukitze ala ez edukitzearen" mailan ez, eta bai "okertze" ala zuzeneko egote eta ibiliztearen" mailan jarri behar da, eztabaida. Erlatibotik eta subjektibotik gelditzen da orduan arrazoiá politikoa.

Demokrazia burgesa bera —nahiz eta parlamentarioa izan— ez da arrazoi objektiboaren arteko aurrez-aurre jartzea; ez da arrazionaltasun objektiboaren garaipena eta irrazionaltasun objektiboaren azpirpena. Interes subjektiboaren konfrontazioa besterik ez da demokrazia burgesa eta parlamentarioa, arrazionaltasuna handitz eta elkarrizketa zabalez bideratu arien.

JAUSORO